

# noaua

**Asteburu honetan  
kultur ekitaldi ugari  
Aginagan**

**Euskaraldia: izena  
emateko epea zabalik da**

**Larunbat honetan  
Andatzara igotzeko  
deia egin du Sarek**



**Pelaioenea eraikina definitzeko garaia da**





San Praixku  
bihotzean



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com



ZUEN ZERBITZURA, SEGURITASUN NEURRI GUZTIEKIN!

## Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua  
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arraineekin.  
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...  
Ezkontzetarako jangela egokitua.  
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfnofax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

## AGINAGAN HOTELA

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:  
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela  
kompletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.  
Lan bidaia, oporaldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobeoa.

Tfnofax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela \* \*



## Albisteak iruditan

# Zumarte eraberritua, ateak irekitzeko azken lanetan

**L**anak amaitzear dituzte Zumarte Musika Eskolan; barrua txukundu, hornitu eta ateak irekitzeko eguna gerturatzen doa honenbestez. Kale Nagusiko egoitza eraberrituak urriko bigarren hamabostalditik aurrera ireki ditzake ateak, udal gobernu taldetik irailaren 24ko udalbatzarrean aurreratu zutenaz.

Gerturatzen doa Zumarte Musika Eskola eraberritua irekitzeko eguna. Atzerapenik ez bada, urria erdialdetik aurrera, datorren hileko bigarren hamabostaldian ireki ditzake ateak ikasleentzat. Hala erantzun zion iragan asteko osoko bilkuran udal gobernu taldetik alkate Agurtzane Solaberrietak, gai honi buruz EAJ-tik egindako galderari.

Hurrengo asteotan eman asmo dituzten urratsen berri eman zuen; estreinatzearen garen urria hasierarako Moyuak urteotako Kale Nagusiko Villa Pilar eraikineko birgaitze eta handitze lanak



Urriko bigarren hamabostalditik aurrera ateak irekitzeko asmoa dute.

amaituak izatea aurreikusia dutela. Gero sakon garbitu, eraikina baliabidez hor-

nitu eta urriko bigarren hamabostalditik aurrera ateak irekitzeko asmoa dute.

## Laburrean

### Jatorri aniztasunari buruzko prozesua atzeratu egin da

Irailaren 24an hasia iragarria zuen Udalak, baina urriaren 15era atzeratu dute aurkezpen ekitaldia. Bertara joateko aurretik eman beharko da izena: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 377 110.

### 24 kasu berri iragan astean

Astebeteetan inoiz izandako kopuru altuena, 24 Covid19 kasu antzeman zituena Osasun Sailak irailaren 21etik 27ra Usurbilen. Hilabetea hasi genuenetik 45 izan dira. 76 martxoaz geroztik.

### Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noau.eus ||| www.noau.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatoria:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disenatzailea:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noau.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noau.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

**P**ostrerik gabeko bazkari bat bezalakoa izan dela esan du batek. Zerbeza epela edatea bezala, gehitu du beste batek. Hurrena hitz egin duenari olaturik gabeko itsasoa iruditu zaió.

Izan daiteke ilargirik gabeko gaua, farolarik gabeko kalea, igogailurik gabeko etxea, gurpilik gabeko bizikleta, kristalik gabeko leihoa, txapelik gabeko zira, patrikarik gabeko galtzak edo Sagardo Egunik gabeko Usurbil. Denei falta zaie zerbait perfektua izateko, edo gutxienez hobea izateko —perfekzioa ez dela existitzen uste bada—. Hori gabe zerbait falta da, ez gaitu erabat asetzen. Eta horrela utzi ditu usurbildar asko trenbiderako oinezko bide berrituak. Premia bazuen eta txukun geratu da, lehen baino hobeto dago, baina... zerbait falta zaió: trenbidearen beste alderaino luzatzea.

Zubia luzeagoa balitz eta beste alderaino iritsiko balitz, errepideaz gain trenbidea ere gaineratik pasatzeko aukera egongo litzateke. Horrela, Santueneako auzotarrek ez lukete trenbidea pasa beharrik izango. Zubietako buelta ematera doazenek ez lukete trenbidea gurutzatu beharrik izango. Santuenera edo



“Zubia luzeagoa balitz eta beste alderaino iritsiko balitz, errepideaz gain trenbidea ere gaineratik pasatzeko aukera egongo litzateke”.

#### AINHOA AZPIROTZ

**“Izan daiteke ilargirik gabeko gaua, igogailurik gabeko etxea, kristalik gabeko leihoa, patrikarik gabeko galtzak edo Sagardo Egunik gabeko Usurbil. Denei falta zaie zerbait”**

erriberara doazenek ez lukete tren ordutegiaren eskizian ibili beharrik izango. Ume-gurditxoarekin trenbidea gurutzatzen dutenek ez lukete arrisku hori bizi beharko. Taldean bizikletan elkarren atzetik presaka eta estu pasatzen direnak ez lirateke kezkatuko. Bastoia-ekin mantso joaten denak ez luke pausoa azkartu beharrik izango.

Aspalditik agerikoa den puntu beltzak beltz-beltza izaten

jarraitzen du. Eusko Trenbideak-ek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak urteak daramatzate egoera honi irtenbiderik eman gabe. Ez dakit zergatik. Ez dut ezagutzen benetako arrazoia. Ez dakit zein den arazoa, zergatik ez den posible izan pasabidea luzatzea oraingoan ere.

Eta bitartean puntu beltza, beltz; ume-gurditxoak, ibiltarien oinak eta bizikleten gurpilak trenbide gaineratik pasatzen alde batera zein bestera, goizez eta arratsalde, euritan zein ateri denean.

Eta hori gutxi balitz, egunero irakurri behar horko kartelak. Zeren, kartelak eta abisuak jarri, jarrita daude. Pasabidean “kontuz trenarekin alde bietatik” jartzen du. Abisatu, abisatuta gaude, baina halere hortik pasa beharra dago, ez dago beste aukerarik.

Geltoki aldera beste bi kartel ere irakurri daitezke. “Debekatuta trenbide gaineratik pasatzea” jartzen du batean. Horixe; nondik pasatzea iradokitzen digute, ba? Trenbide azpitik? Herri batzuetan posible da hori, lur azpiko pasabideak daudelako. Baina Usurbilgoan ez dago horrelakorik.

Hirugarren kartelean zera jartzen du: “tren batek beste tren bat ezkuta dezake”. Bale, ondo. Eta? Lepoa luzatu eta belarriak erne jarri arren, pasa, trenbide gaineratik pasa beharra dago. Hori bai, ordutegia jakitea komeni, zein tren eta nondik norako norabidean etor daitezkeen jakiteko. Ez gaitezela Txokoalde aldera begira egon eta Donostialdetik azaldu tren; edo alderantziz, Bizkarre aldera jiratu lepoa eta Orió aldetik azaldu tren.

Komiko samarra dirudi, baina kontua serioa da. Larria da trenbidea gurutzatu behar izatea horrek dakartzan arriskuekin. Hainbeste kostatzen ote da pasabidea luzatzea? Akaso auzolanean luzatu beharko da. Seguru herrian badela nahiko igeltsero, ingeniari, arkitekto, topografo eta boluntario hori taxuz errematatzeke. Agian hori litzateke soluzio azkarrena eta eraginkorrena. Bai, auzolanean egiteko gogoia ematen du.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

## Ika-mika

## Sinadura bilketa dela eta

**E**rraustegiaren aurkako borroka luzean era askotako egoerak eta faseak egokitu zaizkigu. Egoerak egoera, Usurbilek beti azaldu du argi eta garbi zein den bere jarrera: ez dugu erraustegirik nahi, eta ez dugu proiektu hori inola ere babestu nahi.

Agerikoa da herritarren borrontea, hainbat modutan eta adierazpenetan emana. Egin ditugu manifestazio jendetsuak eta era guztietako protesta ekitaldiak, egin ditugu sinadura-bilketak, abiatu ditugu ezin konta ahala ekimen instituzional, astindu ditugu epaitegiak eta, are gehiago, herri honek erakutsi du hondakinak kudeatzeko modu alternatibo askoz egokiagoa bideragarria dela.

Udala eta herritarrok etengabeko lanean ari gara aspalditik hondakinak kudeatzeko Usurbil 0.0 eredu propioa garatzen, eta adostasunak eta inplikazioak ere bildu nahi ditugu, geure eredia indartzeko eta

herri gehiagotara zabaltzeko. Jakin behar dugu baloratzen egindakoa, baina, erlaxazioan eta autokonplazentzian erori gabe, hobetzen segi beharra daukagu.

Bide horretan tinko ari garen bitartean, Gipuzkoako agintari erraustegizaleak kontrakarrean ari dira, besteak beste, beraien eredia eta gurea bateraezinak direlako. Errauste-planta baino askoz gehiago eraiki dute azken urte luzeetan. Arkitektura juridiko-instituzional osoa eratu dute alternatibei hegoak mozteko: GHK eta PIGRUG dira horren adibiderik nabarmenak. Ondu duten makinariak baditu gutxienez hiru printzipio nagusi: a) Gipuzkoan sortzen diren hondakin guztiak legez GHKren esku geratu behar dute, b) erakunde horien baimenik gabe ez dago geure neurriko azpiegiturak eraikitzerik, eta, c) eraiki dituzten makro-azpiegitura kutsagarriak denon artean ordainarazten dituzte.

Gauzak horrela, herritar talde batek proposatu duen sinadura-bilketarekin ez dugu bat egiten. Bi arrazoirengatik: batetik, ez duelako ez dakigunik ekarriko (ondotxo dakigu zein den herritarren borontea); bestetik, udala jopuntuan jartzen duelako, udalak ataka honen soluzio magikoa balu bezala. Harritu ere egin gaitu, orain baino lehen ere, udalak aztertu baititu makinaria horretatik ateratzeko dauden aukerak, ikuspegi juridiko, ekonomiko eta teknikoak. Argi eta garbi ikusi zuen baldintza hauetan bide hori urratzeak irteerarik gabeko puntura eramaten gaituela, aurkariei abantaila eman, errefusaren gainera kontrola geureganatu gabe, eta babesik gabe. Ausardia ez, arduragabekeria litzateke.

Kontua ez da ea erraustegia elikatu nahi dugun ala ez, beraz. Borrontea soila ez da aski. Kontua da nola; alegia, nola jokatu behar dugun erraustegia ez elikatzeko, eta

nola egingo diogun aurre sortu duten makinariari, bide horretan Usurbilek dagoeneko egin duena galbidean jarri gabe. Usurbilgo Udalak dudarik gabeko konpromisoa eta ekimena erakutsi ditu, eta aurrerantzean ere elkarlanean aritu behar da udalarekin, ez jopuntuan jarrita.

Gaur egun, erraustegia eraikitako dagoela eta keak bistan ditugula, Usurbilek pentsatu beharra dauka nola segi aurrera borroka horretan. Determinazioa eta ausardia bezainbat behar dira egoeraren diagnostiko egokiak, argitasuna eta batasuna. Batuta aritzea izan da eta izango da aurka ditugunei aurre egiteko modu eraginkorra.

Herri-eragileekin, herritarrekin eta udalarekin batera, EHBildu prest da lan horretan aritzeko. Badakigu borroka zaila dela, baina badakigu borrokatzeak merezi duela.

## Usurbilgo EHBildu

## Ika-mika

## Herriko gure bizilagunen laguntza behar dugu

**K**aixo, gutun honen bidez portugaldar nazioartasuna duten bizilagun batzuk salatu nahi ditut. Saneanean auzoan bizi dira eta martxotik hona ez dute alokairua pagatu.

Maizter hauek Valentina Roman etxeko jabearen egoeraz

baliatu dira, Usurbilgo herritar guztien artean ezaguna dena. Andere hau gaixorik da eta apiriletik nagusientzako egoitzan batean dago, handik hona bueltatzeko aukerarik gabe. Egoera honen aurrean, maizterrek jabearen gaixotasunaz baliatu dira alokairua ez pagatzeko eta gainera etxea oku-

patu dute, bertatik ez joateko intentzioarekin.

Usurbilgo herritarrei eskatu nahi nieke protesta ekintza baten bidez babesa adierazi dezatela elkarretaratze baten bitartez, jende honek okupazioa bertan behera utz dezan. Are gehiago, etxebizitzaren jabea zahar-egoitzatik kanpo-

ratua izan daiteke, egoitzako azken kuotak ez ordaintzeagatik, maizterrek alokairua ez diotelako pagatzen.

Mesedez, herriko gure bizilagunen laguntza behar dugu. Eskerrik asko,

## Esterban Hontiveros Roman



# Oinarrizko Lanbide Heziketa Udalak eskaintzeko eskuordetze akordioa urtebetez luzatua

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketari eragiten dion erabaki baten berri lerrootan. Ziklo eskaintzeko eskumena Usurbilgo Udalak du, Eusko Jaurlaritzak eskuordetua dio zeregin hau.

Izatez, eskuordetzea berri-tzea egokitzen zen ikasturte hasiera honetan, bi erakundeek (Jaurlaritzak eta Udalak) 2015-16 ikasturtean bost urterako adostu baitzuten eskuordetze akordioa. Baina "Eusko Jaurlaritzak hurrengo 5 urteetarako (2020-2025) eskumena eskuordetzeko dekretua izapidetzen hastea ezinezkoa izan du, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak eten egin direlako, Covid19-ko alarma egoera dela eta".

Ondorioz, egun indarrean den eskuordetze akordioa beste urtebetez luzatzea proposatzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak uztailaren 28an onarturikoaren arabera.



Usurbilgo Atallun bi urteko bi ziklo eskaintzen dira.

## BEÑAT LARRAÑAGA

**"Hezkuntza ez da Udalon eskumena". Eta halere, "diru ekarpena egin behar" izaten dutela adierazi zuen**

### Eskumena Jaurlaritzarena, diru ekarpena udalen esku

Eskuordetze luzapen hau indarrean jartzeko udalek onartu beharra zuten; tartean Usurbilgoak. Proposamena irailaren 24ko udalbatzarrera eraman zuten udal gobernu taldeak.

Aho batez onartu zuten. Usurbilgo Atallun eskaintzen diren bi urteko bi zikloetarako (ile-apainketa eta estetika eta sukaldaritza zein jatetxea) Udalak egin beharreko diru ekarpenak ere zehazten ditu luzapen honek.

Akordio berria, ikasturte amaieran sinatzea aurreikusia dute bi aldeek. Halere, Beñat Larrañaga zinegotziak gogorarazten zuenez, "hezkuntza ez da Udalon eskumena". Eta halere, "diru ekarpena egin behar" izaten dutela adierazi

zuen, nahiz, eskumena berea izanik "%100ean Eusko Jaurlaritzak finantzatu beharko lukeen. Are gehiago orain". Udal gobernu taldearen esanetan, Covid19-aren eraginez ordutegiak berrantolatu behar izan direnean, edota bizi dugun osasun krisialdiak gastuak ere gehitzea ekarri duenean. "Gastu gehigarri gehiago" Udalak bere gain hartu beharra hain zuten. Oinarrizko Lanbide Heziketari buruzko informazio gehiago hemen: [olh.usurbil.eus](http://olh.usurbil.eus)

## Moriako errefuxiatuen alde

Urruti dagoen errealitatea iruditu arren, "gertuko begiradaz" so egiteko beharra azpimarratu zuten irailaren 24ko udalbatzarrean udal gobernu taldetik, berriki Greziako Moriako pertsona errefuxiatuen eremuan jazo den sutearen harira. Bertako milaka biztanleek lehendik zituzten baldintza penagarrietatik ihes egin behar izan dute, are egoera onartezinagoan dira orain. "Europako auzolotsa" gisa definitu zuten errealitate bidegabe honi lotutako erakunde adierazpena

aurkeztu zuen udal gobernu taldean den EHBilduk; aho batez onartu zuten iragan asteko udalbatzarrean.

Udal talde guztien babesa jaso zuen erakunde adierazpenak elkartasuna adierazten die "bizilekueetatik alde egin beharrean diren pertsonen". Era berean bere burua "harrera hiritzat" hartuta, "gatazka politikoa eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du".

Eusko Jaurlaritzarekin eta

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat eginda, "iheslariak hartzeko eta integratzeko harri planari eusteko konpromisoa berresten du eta xede horretarako estrategiak, programak eta baliabideak zehaztuko ditu, baita erakundeen eta gizarte antolakundeen arteko elkarlanerako esparruak ere".

### Erantzun aktiboa

Espainiako Gobernuari eta Europako erakundeei "premiatzeko neurriak" hartzea eskatzen diote "krisi humanitario honi

erantzun aktiboa emateko": elkartasuna eta justizia oinarri hartuta, pertsonak lehenetsi eta giza eskubideen zaintza bermatuko duen immigrazio eta asilo politika bateratua sustatzea, eta pertsonok hartzeko beharrezko bitartekoak bideratzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari aldiz, "Moriako tragediaren aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezatela eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzatela eskatzen die".

# “Oinherri” garatzeko lan taldea osatu da

**P**otoxoenean bildu zen irailaren 23an “Oinherri” herri hezitzaileen sareko kide den Usurbilgo lan taldea. “Dinamika bat martxan jartzeko asmoa dute. Dena den, azaldu dutenez, ikasurterako helburuak finkatu eta publikoki aurkeztuko dituzte euren asmoak”, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

Egunotan bezala aurrerantzean hileroko biltzen segiko du, udal ordezkari, herri eragile eta norbanakoez osaturiko lan talde honek, “foro iraunkor bat sortzea helburu”.

## Esperientzien ezagutza eta eragileen arteko sinergiak sustatzea

Usurbil “Oinherri” herri hezitzaileen sarean txertatzea erabaki zuen udalbatzak joan den otsaileko osoko bilkuran. Erabaki hura, hitzarmen batean islatu zuten ekainean Udalak eta Oinherri egitasmoaren sustatzaileek. “Oinherriko kide da Usurbil: sare horren parte diren beste herrien esperientziak



Usurbil “Oinherri” herri hezitzaileen sareko kide da.

## OINHERRI

**“15 udalerrri edo auzoek bat egin dute jada ‘Oinherri’ egitasmoarekin, tartean Usurbilek”**

ezagutu eta aisialdiarekin lotutako herriko eragileen arteko sinergiak sortu asmo dituzte”.

7 kontzeptuetan oinarrituriko aisia-eredua proposatzen du Oinherri. “Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori

oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; euren erakitako aisia hezitzailea eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta ingurumen kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea”.

15 udalerrri edo auzoek bat egin dute jada Oinherri egitasmoarekin, tartean Usurbilek. Informazio gehiagorako: herri-hezitzailea.eus

# “Ez hondakinik, ez dirurik erraustegiarentzat” sinadura bilketa abian

Herritar talde bat hasi da sinadurak batzen eta aurrerantzean astebururo jarriko dute mahaia Sutegi atarian. Ekimena Udalarari sortzen ditugun hondakinekin erraustegia elikatu ez eta gure diruarekin ordaintzea eragozteko eskatzen jarri dutela martxan argitu zuten, uztailean NOAUA!ra igorritako oharrean. “Erronkak merezi du, gure herriaren etorkizuna dago jokoan”, ohararazi zuten. Astebururo eskainiko dute sinadura bilketan



Astebururo sinadurak batzeko mahaia ipiniko dute Sutegi atarian.

parte hartzeko aukera. Ostiral arratsaldetan 19:00-20:00 inguruan, eta larunbat zein igan-

deetan, eguerdi partean frontoi inguruan, Sutegi atari bueltan topatuko dituzue.

## Hondakinak kudeatzeko protokoloa eguneratu da

Kutsatzeen arrisku katea mozteko jarraibide berriak eman dituzte Atez Ateko bulegoak eta Udalak.

Osasun krisia hasi zen momentutik bertatik ezarri zituzten gaixorik edo isolamenduan zeuden herritarren hondakinak modu are bereziagoan jasotzeko argibideak. “Atez Ateko bulegoari jakinarazi eta horrek prozeduraren berri ematea izan da funtzionamendua”, azaldu dute udal iturriek. “Orain, PCR proba gehiago egin eta prebentziozko isolamendua gehiagotan agintzen ari diren honetan”, jarraibide gehiago eman dituzte.

## PCR probaren zain daudenean

Eskakizun berrietako bat hauxe da: etxebizitzako kideen artean norbait PCR probaren emaitzen zain dagoen bitartean ez ateratzeko hondakinik. “Proba egin eta biharamunean izaten da emaitzen berri, eta, beraz, gehienez ere egun bateko edo biko kontua izango litzateke”, diote udaletxetik.

## PCR proban negatibo eman dutenentzat

PCR probaren emaitza negatiboa izan bada, etxean konfinatuta gelditu behar dutenek ohi bezala atera ditzakete hondakinak.

## PCR proban positibo eman dutenentzat

Aldiz, PCR probaren emaitza positiboa izan bada, orduan Atez Ateko bulegoari jakinarazi. Etxebizitzako kideen artean batek positibo ematea nahikoa da bilketa modu are bereziagoan egiteko. Atez Ateko bulego-ara deitu [900 776 776], eta haiek joango dira hondakinak jasotzera.

# Pelaioenea, hitza hartzeko garaia da

Irailaren 19an, Kalezarko Pelaioenea atarian aurkeztu zituzten Emakumeen Etxea eta auzotarren udal ekipamenduari lotutako parte hartze prozesuen nondik norakoak. Usurbilgo Udalak eta Elhuyarrek datozen asteetan abiatuko dituzte prozesuok, proiektu hauei forma emateko interesa duten herritar eta eragileekin. “Etorkizuneko Pelaioenea mamiz eraikitzen hastera goaz gaur”, iragarri zien Usurbilgo alkateak, Felix Aizpurua plazara joandako herritar, udal ordezkari zein teknikari, nahiz herri eragileetako ordezkariak.

## “Eraikina birgaitu, zaharberritu eta biziberritzeko konpromiso irmoa”

Udal gobernu taldea pozik agertu zen, deialdiak izan zuen harerarekin. “Milesker aurkezpen honetara etortzeagatik. Egia esan, gu jada ilusionatuak gaude proiektu honekin baina plaza honela ikustea are ilusionagarriagoa da”, adierazi zuen alkateak.

Covid19-ak atzerarazi egin du proiektuotan urratsak ematea; baina heldu da unea eta “udal hau ilusio eta gogo berearekin gaude” ekiteko. “Pelaioenea birgaitu, zaharberritu eta biziberritzeko konpromiso irmoa” dutela adierazi zuen alkateak.



Emakumeen Etxea eta auzotarren udal ekipamenduari lotutako parte hartze prozesuak hastera doaz. Bien aterpe izango da Pelaioenea eraikina. Elhuyarrek egingo ditu dinamizazio lanak.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Gure leloa (Usurbiltzen) bereiztu baino batu da eta herritarren eta herriko elkarten elkarlanerako espazioak sortzea da gure helburua”**

Eskutik helduta garatu eta bide horretan elkar elikatuko diren, eta azkenerako Pelaioenea barrua eraikitzea ahalbidetuko duten bi proiektu elkarbiziko dira. “Biek ala biek Kalezar auzoari ekarpen handia egin diezaieketen proiektuak

direla uste dugu eta auzo hau bizigarriagoa izan dadin lagunduko dutela”, nabarmendu zuen Solaberrietak.

## Inbertsioa 2021eko udal aurrekontuetan

Proiektuok emango diote forma eta bizitza Pelaioenea berriaren barrualde hutsari. “Zer eta nola beteko dugun”, alkateak irailaren 19ko ekitaldian zehaztu zuenez. Horretarako iragarri dituzte bi parte hartze prozesuak. Herritar nahiz eragileekin jorratuko duten bideak definituko du geroa,

eraikin barruko “eskuartzea zein den”. Eta lanok gauzatze-ko inbertsioa 2021eko udal aurrekontuetan txertatu asmo du udal gobernu taldeak.

Pelaioenean bi proiektu elkarbiziko dira, “bientzako tokia dagoela uste dugu eta gainera osagarriak izan daitezkeela uste dugu”. Ildo hau sustatzearen aldeko apustua berresten dute udal gobernu taldetik. “Gure leloa (‘Usurbiltzen’) bereiztu baino batu da eta herritarren eta herriko elkarten elkarlanerako espazioak sortzea da gure helburua”.

## “Kalezar bizigarriagoa izan dadin”

Pelaioenean ere Emakumeen Etxea eta auzo ekipamendua elkarbiziko dira. “Kalezar bizigarriago bat izan dadin beste pauso bat izango da, biek auzoari egingo dioten ekarpenari esker”, adierazi zue Oskar Santamaria zinegotziak.

Kalezar eraldatze betean dela

gogorarazi zuen, bidegorria, Ugartondoko etxebizitzak, adinekoen auzune berriaren eraikitze lanak eta Pelaioeneako proiektuei esker. “Auzo guztien Usurbil eraiki eta auzo bizigarriak izatea nahi genuke. Ez dugu Kaxkoa eta auzoen arteko desberdintasunak areagotzerik nahi”. Ildo horretan,

auzoen bizi kalitatea hobetu nahi dute, tokian tokiko beharrak identifikatu, auzokideekin proposamenak landu, azkenean, “kohesio soziala, mugikortasun jasangarria eta zerbitzu publikoen eskuragarritasuna bermatzeko”.

Iaz Txokoaldeko Akerrarekin egin bezala, orain kale-

zartarrei hitza eta erabakia emango die Udalak Pelaioeneko txokoa definitzeko. “Auzotarrek auzoaren beharrei erantzuteko lokal bat behar dutela helarazi diote udal honi eta Pelaioeneak horretarako aukera ematen duela iruditzen zaigu”, adierazi zuen Santamariak.



# Emakumeen Etxearen aterpe

**K**alezartarrentzako udal ekipamenduari batera, Emakumeen Etxearen egoitza izango da Pelaiouena. “Erreferentziatzeko espazio bat”. Espazio propio bat Aroa Etxeburua zinegotziaren esanetan, “emakumeak elkar topatzeko, ahalduntzen jarraitzeko, zaintzeko, ikasten jarraitzeko, deseraikitzeke, maitatzeko”.

Mugimendu feministak urte luzez eginiko eskaera gauzatu da egitasmo honekin, Usurbilgo Udalak ere 2010ean Parekidetasun Saila sortu zutenetik berdintasunaren alde jorraturiko bidean urrats berri bat. Hain zuzen “jada azkeneko Berdintasun Planak jasotzen zuen proiektu hau”. Koka-gunea badu jada; Pelaiouenan. “Hemen gorpuztu nahi dugu Emakumeen Etxea”.

Abiatzear duten parte hartze prozesura gonbidatu zituzten,



Mugimendu feministak urte luzez eginiko eskaera gauzatu da egitasmo honekin.

## PARTE HARTZE PROZESUA

**“Prozesu honen bitartez Emakumeen Etxearen funtzionamendua definituko da”**

Kafe Tertuliako neskek, Martxoaren 8ko iraganeko nahiz egungo antolatzaileak, nahiz ekarpena egiteko interesa duen oro.

Prozesu honekin erabaki nahi dute, “nolakoa nahi dugun Usurbilgo emakumeok izatea Emakumeen Etxea, zer behar dituen eraikuntza honen, nolako funtzionamendua nahi dugun izatea, nola izango den bi proiektu hauen arteko elkarbizitza, eraikuntza honen barruan, nolakoa izango den kudeaketa, eta batez ere zer behar nahi dugun asetzea Emakumeen Etxeak”.

## Txaramuntoko esleipendunen behin-behineko zerrenda

Txaramuntoko alokairu sozialeko 7 etxebizitza esleitzeko prozesuan urrats berri bat eman du Usurbilgo Udalak; uztailearen 30era arte zabaldu zuen epearen baitan izena eman zutenekin, esleipendunen behin-behineko zerrenda argitaratu eman du, “jasotako eskaeren baremazioa egin ostean”. Zerrenda dekretu bidez onartu zuen irailaren 23an, Udalak berri eman duenez.

### Erreklamazioak aurkezteko epea

Erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko tartea zabalik da. Alegaziorik ez balego, “esleipenak behin-betikoak izango dira”.

Behin-behineko esleitzeen zerrendak usurbil.eus atarian kontsulta ditzakezue.

## Parte hartze prozesuak abiatzear

- Sustatzailea: Usurbilgo Udala.
- Dinamizatzailea: Elhuyar.
- Helburu nagusia: Pelaiouenan biziko diren Emakumeen Etxearen eta kalezartarren udal ekipamenduen zehaztasun nagusiak definitzea.
- Talde eragilea: udal ordezkari politiko eta teknikariek, nahiz Elhuyar Aholkularitzako teknikariek osaturikoa. Parte hartze prozesuon antolaketa lanak bideratuko dituzte.
- Hausnarketarako bi guneak: Emakumeen Etxea eta Kalezarko auzo ekipamendu proiektuak zehazten lagunduko dutenak.
- Bi prozesuen iraupena: irailan hasi eta apirilean amaitu. Apirilerako bi memoria

txostenak prest izatea aurreikusten dute.

■ Oharra: elkar elikatuko dira bi prozesuak.

### Emakumeen Etxea

■ Aurreikusitako bilera kopurua: 5.

■ Hasiera eguna: urriak 8, 18:00. Izena emandako herritar kopuruaren arabera zehaztuko da tokia.

■ Bileren maiztasuna: hilero lehen astean.

■ Prozesuaren helburua: Emakumeen Etxearen zehaztapenekin lotutako alderdiak identifikatu eta lantzea.

### Bileren edukia:

■ 1. bilera (urriak 8): prozesurako balio eta printzipioak landu. Etxearen helburuak.

■ 2. bilera (azaroan): etxearen printzipioak eta filosofia. Etxearen erabiltzaileak.

■ 3. bilera (abenduan): etxearen jarduerak eta zerbitzuak. Antolaketa espaziala.

■ 4. bilera (urtarrilean): etxearen kudeaketa-eredua. Etxearen funtzionamendua.

■ 5. bilera (otsailean): aurrera begirako bide-orria.

### Auzotarren ekipamendua

■ Aurreikusitako bilera kopurua: 3.

■ Hasiera eguna: urriak 15, 18:00, Haur Eskolan.

■ Bileren maiztasuna: hilero bigarren astean.

■ Prozesuaren helburua: kalezartarren beharrei erantzungo dien auzo-ekipamendua ze-

haztea.

### Bileren edukia:

■ 1. bilera (urriak 15): auzotarren beharrak identifikatu.

■ 2. bilera (azaroan): auzotarren beharrak asetzeko beharrezko espazioak definitu.

■ 3. bilera (abenduan): espazioaren kudeaketa definitu.

### Parte hartzeko:

■ Aurrez izena eman (943 377 110 / paredekitasuna1@usurbil.eus) eta hautatu ze parte hartze prozesuetan esku hartu nahi duzun.

■ Lehen bilerarako hitzorduak zehaztu dira, hurrengo bileretakoak izena emandakoek zehaztutako lehen-tasunezko egun eta orduen arabera erabakiko dira.

# Aginagako Eliza Zaharra, guztien elkargune izateko auzolanean

**E**zohiko San Praixkuetan murgiltzeaz da Aginaga urriko lehen asteburuan. Bizi dugun osasun krisialdira egokituriko hiru hitzordu prestatu ditu Jai Batzordeak hilaren 2tik 4ra. Festen eremua ordea Ariztitxo frontoira mugatuko du, eta Eliza Zaharra hitzorduotatik kanpo geratuko da. Lerrootan ordea protagonista dugu Aginagako Herri Elkargunearen egoitza, auzolanean berritzen jarraitzen baitute aginagarrek.

Eliza Zaharreko hormak bistan utziz hasi zituzten lanok duela urte batzuk. Gerora moldaketa lan gehiago bideratu zituzte; oholtza zela, berrikuntza txikiak, margoketa lanak... Lurzorua berritzeko beharra ikusi zuten. “Inflexio puntu bat izan zen. Lurzorua gaizki zegoela ikusten genuen. Lurra altxa eta berria jartzeko une horretan gelditzea erabaki genuen”.

Lurzoru berria jarri eta gero azpiegiturak berritzea erabakitzen bazuten? Aurrera jo aurretik, Origami herriko arkitektura taldekoekin hartuemanetan jartzea erabaki zuten, “eta guk eskatuta, gure beharren arabera proiektua diseinatu ziguten”.

## Lehengorutzen

Faseka banatua dago egitasmoa, lehenengoa udan bide-



Faseka banatua dago egitasmoa, lehenengoa udan bideratzen hasi ziren; azpiegiturak berritzeko lanak.

## BERRIKUNTZAK

**“Sakristiko leihoa zena beheraino ireki eta masarekin txukun hartuta” zenbait berrikuntza lan egin dituzte**

ratzen hasi ziren; azpiegiturak berritzeko lanak. “Lurra dena txikitu, ur eta argindarraren hodiak pasa eta lur berria jarri” eta horrekin batera, “sakristiko leihoa zena beheraino ireki eta masarekin txukun hartuta” zenbait berrikuntza lan egin dituzte. Bigarren fasean komuna egokitzea izango dute helburu. Origamik diseinatutako proiektuak lehen bi faseak

definituak ditu, oinarrizko faseak dira. “Hortik aurrerakoak oraindik definitu gabe daude ze akabera, ze material izango dituen...” Aurrerago erabakiko dute. Baina bideratzeke izan ditzaketan lanen hurrengo balizko urratsen berri aurreratu digute. “Garrantzitsua sakristiko atea, frontoiko ezker paretara bota eta sakristiraino arrapala batez hemengo maila berdinean joatea eta gero plataforma bat atarian irisgarria izateko”.

Auzolan hau lehengoratzeko lan bat ere bada. “Garai bateko zimitorioa zen moduan, berreskuratzea” dute helburu baita.

Guztia, Eliza Zaharra gune irisgarrian bilakatzeko, belau-naldi ezberdinetako aginagarraren bilgunea izateko. “Finean irisgarria izango den eraikina egitea, beharrezko ekipamendu guztiarekin, denentzat, herri osoarentzat, denetarikoko ekimenak antolatzeke, ume, heldu eta denontzat”. Azken urteotan bide hau jorratu dute Eliza Zaharrean; San Praixkuetakontzertu edo ekitaldi zehatzak antolatzeaz gain, azken urteotan Eskola Txikikoek baliatu dute gunea hainbat emanaldi eskaintzeko edota bertan proiektatu zuten duela bi urte, Aginagan grabaturiko “Oreina” filma.

## Covid19-ak egitasmoa baldintzatu du

Sustatzaileek NOAUA!ri adierazitakoaren arabera, izatez “Aste Santuetan lehenengo fasea bideratzeko asmoa genuen eta bigarrena abuztuan”. Lehenengoa ordea udan hasi dira bideratzen eta ez dago

oso argi noiz heldu ahalkodioten hurrengo faseari. “Data zehatzik ez dugu, agian urte amaiera honetan egin ahalko dela planteatzen da, baina ez dago zehaztua”.

Auzolan egitasmo honetan

“gehienbat jai batzordeko kideok ari gara, baina herriko jende asko laguntzeko prest agertu da hasieratik”.

## Esker bereziak

Eskekerrak helarazi nahi dizkie-

te, laguntzen ari diren guztiei.

Modu berezian eskertu nahi dituzte: Terri, Iruarkaitzeko Felix Aranguren, Larburu garraioak edota Iñaki Errekondo.



**San Praixku bihotzean!**

**Angulas Mayo s.l**

AGINAKO ANGULAK  
BEREZO BIBEROAK

International Standards  
FACE Nº 004508

**TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94**

**VDA. E HIJOS DE JERONIMO IZAGUIRRE**

**San Praixku bihotzean!**

**943 362 146 AGINAGA**  
[www.mariscosizaguirre.com](http://www.mariscosizaguirre.com)



# Euskaraldian izena emateko epea ireki da

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra luzatuko da Euskaraldia. 15 egunez, Ahobizi edo Belarriprest roletan parte hartzeko deia egin zaie herritarrei. Dagoeneko izen-ematea zabalik da euskaraldia.eus web orrialdean.

Elkarlanerako gune izan da aurtengo Euskaraldia eta ekimenaren ezaugarri garrantzitsu modura azpimarratu zuten irailaren 24an Gasteizen egin zuten agerraldian. Gizarte eragine eta erakunde publikoen artean sortutako eta bultzatutako ekimenera enpresak eta bestelako entitate pribatuak gehitu dira. Horretaz gain, Euskaraldia antolatzen eta zabaltzen ari den gizarte sarea handia dela azpimarratu eta herrietan ere elkarlan dinamika berriak sortzen ari direla gogora ekarri zuten.

## Arrate Illaro, Euskaraldia:

### “Kide berriak ere, ongi etorri”

Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzailea da. “Herri batzordeak eta ariguneak aktibatuta dauden honetan, herritarrei deia egin nahi diegu Belarriprest edo Ahobizi modura Euskaraldian parte har dezaten”.

Lehen edizioan parte hartu zuten kideak “berriz gurekin aritzea nahi dugu”, dio Illarok. “Baina baita kide berriak ere: bakoitzak nahi eta ahal duen jokabidea hartuta egin daiteke ariketa”.



Instituzioetako ordezkariek eta herri eragileak bat eginik, Euskaraldiaren bigarren edizioaren aurkezpenean.

## EUSKARALDIA

**“Herritarrei deia egin nahi diegu Belarriprest edo Ahobizi modura Euskaraldian parte har dezaten”**

## Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzak: “Heldulekuak behar ditugu”

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua da Bingen Zupiria. Bere esanetan, “pandemiak gogor jo gaitu azken hilabeteotan. Samina eragin du familia askotan, eta denok utzi gaitu pattal samar. Eta une honetan ilusioa behar dugu. Heldulekuak behar ditugu. Estimulu berriak behar ditugu. Eta uste dut Euskaraldiak hori ekar diezakeela”.

## Ana Ollo, Nafarroako Gobernua: “Belaunaldi euskaldunagoak datoz”

Nafarroako Gobernuako Herri-tarren Harremanetarako Kontseilaria da Ana Ollo. “Gaitasun eta motibazio askotariko lagunek hartuko dugu parte Euskaraldian. Anitzak gara, eta, hala ere, badugu zerbait komunean: euskaraz gehiago egiteko urratsak emateko prest gaude”. Nafarroan, euskararen gaitasunean, adinaren aldagaiak biziki eragiten duela dio. Dena den, “euskaraz dakiten gazteen ehunekoak goraka egin du azken urteotan etengabe. Nafarroan, gazteen %25a euskalduna da. Belaunaldi euskaldunagoak datoz, hemen daude eta euskarak etorkizuna duela erakusten digu honek. Espero dezagun gazteen eus-

kararen aldeko hautua indartzea eta euskarari leku gehiago ematea”.

## Kike Amonarriz, Topagunea: “Hauxe da momentua”

Euskaltzaleen Topaguneko presidentearen esanetan, jauzi berri bat emateko garaia da: “Duela bi urteko enpatia, ilusioa, begiradak, konplizitatea sintonia onak... berri bizi-tzera goaz. Eta hauek ere ahalik eta jende gehienara iristea lortu nahi dugu. (...) Euskararen aldeko jauzia egiteko garaia da: herritarrek, erakundeek, aisialdian eta arlo sozioekonomikoan ari diren eragileek, denok dugu jauzi hori emateko zeregina eta ardura. Hauxe da momentua. Eta guk ez badugu egiten, ez du beste inork egingo”.

## 4.300 dira Ariguneak sortzeko izena eman duten entitateak

Azken hilabeteetako lanak pandemiak baldintzatuta egin dira herriz herri antolatuta dauden batzordeetan, eta horrek ere eragingo du. Hala ere, lehen edizioan Euskaraldira

batu zen herri kopurua gaintu dela nabarmendu dute antolatzaileek. Izena eman duen herri kopurua 412koa izan da (aurreko edizioan 405 herritan egin zen).

Horretaz gain, jadanik 4.300 baino gehiago dira Ariguneak sortzeko izena eman duten entitateetako zentroak, eta guztira 13.000 arigunetik gora egongo dira. Era guztietako

entitateek Ariguneak sortu eta Euskaraldian inskribatzeko epea irailaren 27an itxi zuten, eta urrian zehar jakin ahal izango dira behin-betiko datuak.

# Usurbilgo Udala, Euskaraldiarekin bat

Ahobizi eta Belarriprestekin batera, entitateen parte hartzea sustatu nahi duen urte amaierako Euskaraldiarekin bat egin du Usurbilgo Udalak, iragan osteguneko udalbatzar amaieran atera zuten ondoko talde argazkiak erakusten duen moduan.

Aurretik, euskararen erabilerarekin areagotzea helburu duen ekimenari atxikimendua adierazteko erakunde adierazpena onartu zuten udal ordezkariak osoko bilkuran.

Ia %100ean euskaraz bizi den erakundea izan arren, oraindik zer hobetua izan dezakeelakoan, bat egin du Usurbilgo Udalak urte amaierarako deitu den 2. Euskaraldiarekin. Dena-rik entitateak (erakundeak, herri eragileak, elkarteak, taldeak...) Ariguneen edo euskaraz aritzeko guneen bidez



Usurbilgo Udalak urte amaierarako deitu den 2. Euskaraldiarekin bat egin du.

## UDAL ADIERAZPENA

**“Inplikazioa eta konpromisoa” bere gain hartu nahi ditu Udalak “euskaraz bizitzeko helburu horretan”**

partaide bilakatu nahi dituen ekimenean parte hartzeko hautua egin du Udalak; “bada eremu batzuetan zer hobetua”,

zioten udal gobernu taldetik azken udalbatzarrean.

Horregatik, Usurbilgo Udalak baliabideak Euskaraldirako jarri eta ekimena dinamizatzeko herrian sortua den batzordean parte hartzearekin batera, “inplikazioa eta konpromisoa” ere bere gain hartu nahi ditu “euskaraz bizitzeko helburu horretan”, Agurtzane Solaberrieta alkateak osteguneko

osoko bilkuran nabarmendu zuenez.

## Entitate bezala izena emango du Udalak

Testuinguru honetan aurkeztu zuten Euskaraldiarekin bat egiteko erakunde adierazpena. Entitate bezala izen ematea onartzen du Udalak adierazpen honetan, inskripzio prozesua abiatzearekin batera. Horrekin batera, “kanpo zein barne Ariguneak izan daitezkeen guneak eta taldeak” identifikatuko dituela eta “talde horietako kideei ariketan parte hartzeko proposamena” egingo dietela.

Ariguneen edo euskaraz aritzeko guneen bidez parte hartuko dute entitateek datorren Euskaraldian. Irailaren 27ra arteko epea zuten izen emateko. Ireki berri da Ahobizi eta Belarriprestontzako izen ematea.

San Praixku bihotzean





KARABANAK  
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua  
24 orduz hibernetzeko zerbitzua  
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA  
Salmenta, konponketak eta mantenua  
24 orduz hibernetzeko zerbitzua  
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Agnaga, Usurbil - Tel.943 362 660  
www.norai.nautika.com - info@norai.nautika.com

IRUARKAITZ  
ERAIKUNTZAK, S.L.



·FATXADAK ETA TEILATUAK  
·ERAIKUNTZAK  
·BARRUKO BERRIKUNTZAK  
·URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



# Aitziber Elortza: “Elektrosentiberak denok gara. Elektrohipersentiberak, kaltetuak gertatu garenak”

**5**G sistema teknologikoaren ezarpena geldiarazteko xedez, sinadura bilketa bati ekin diote. Usurbilen, Aitziber Elortza eta BiziBide elkarte aritu dira sustatzaile lanetan. “Uhinengandik ihesi bizi naiz. Bestela gaixotu egiten naiz. Nere ahalegina batez ere hortik dator”, adierazi digu Elortzak. “BiziBide elkartearen babesarekin mugitzen ari naiz. Ia 400 bazkide dituen elkarte gipuzkoarra da”. 5Garekin gaixo berriak asko ugaritzeko arriskua ikusten dute, “jada gaixo gaudenak asko okertzeaz gain”.

## NOAUA! Elektrohipersentiberak zara. Noiz jakin zenuen gaitz hori zenuela?

**Aitziber Elortza:** Badira zortzi bat urte kontaminazio elektromagnetikoari buruz zertxobait entzuten hasi nintzela. Arte Ederretan Lizentziatua izanik, garai bateko arkitektoen geometria ikastaro bat burutu nuen, uhin naturalez gain artifizialak ere ikasi behar izan genituen.

Hauen eragina zenbatekoa zen ikusteko, proban jarriaz hasi nintzen. Inguruan eta nigan zituen eraginekin behin eta berriz jolastuz. Beldurrik ez nien eta emisio handien aurrean nahiko lasai jartzen nintzen, momentuko ondoeza bai baina ondoren, joan, desagertu egiten zela ikusita. Aldiz, denbora eta urteak igaro ahala, oinazeak okerrera zihoaztela jabetzen hasi nintzen, emisio intentsitate txikiagoetan gero eta ondorio larriagoak eta egonkorragoak bihurtzen. Nire gorputzak min eta sintoma horiei buelta emateko, emisioen ia erabateko desagertzea, oinarritzeko baldintza bihurtu zen arte.

Elektrohipersentiberak izena orduan topatu nuen. Niri bakarrik ez, edonori gerta zie-



Uhinak neurtzeko gailu bat eskuratu zuen Alemanian. Eskuartean duen makinatxoaren intentsitate eta frekuentzia motak neurtzeko baliatzen du.

### AITZIBER ELORTZA

**Sintomak asko eta ezberdinak dira. “Nerbio sistema zentrala da kaltetuta geratzen dena. Ondorioz, buruko min handiak, neke handia oso maiz, lo egin eta neke gehiagorekin esnatu, insomnioak jota ibili, mugitzeko indarririk ez, gorputz osoko minak, digestio arazoak, hormona arazoak, umore aldaketak, gorputzaren tenperatura ezin erregulatu...”.**

zaiokeela ikusita, informazio bila hasi nintzen. Elektrosentiberak denok gara; elektrohipersentiberak, kaltetuak gertatu garenak.

**Zeintzuk dira elektrohipersentiberak den pertsona batek dituen sintoma nagusiak?**

**A. E.:** Nagusiki, nerbio sistema

zentrala da kaltetuta geratzen dena. Ondorioz, buruko min handiak, neke handia oso maiz, zorabioak, lo egin eta neke gehiagorekin esnatu, edo insomnioak jota ibili, mugitzeko indarririk ez, gorputz osoko minak, digestio arazoak, hormona arazoak, umore aldaketa nabarmenak, gorputzaren tenperatura ezin erregulatu, kontzentratzeko neke handia, eztarria eta belarria babaz bete izaten dugu eta noiznahi iriritatu egiten zaizkigu, baita angina edo otitis puntua harapatu ere. Sistema immunologikoan arazoak, infekzioak ezin sendatu, gripe sintomak, sukarra gora eta behera, sinusitisak, ez tul lehorra...

Emisioak desagertzen dituzten heinean, sintomak ahultzen joaten dira, ia erabat desagertu arte.

Sintomak, batzuetan bakarrik eta besteetan konbinatuta agertzen dira, emisioaren intentsitate, frekuentzia mota eta denboraren arabera.

## “Kaxkoan bertan indar dezente bi antena ditugu”

**NOAUA! Usurbil bezalako herri txiki bat egokia da zurearen moduko gaitz bat duenarentzat. Ala Usurbilen ere puntu beltz ugari al daude?**

**Aitziber Elortza:** Gaur egun oso zaila da puntu beltzik gabeko lekurik aurkitzea. Mendian akaso. Usurbilen, kaxkoan bertan indar dezente bi antena ditugu, bata San Estebanen eta bestea RNE irrati antena Andatza azpian.

Etxe barruetan ere iturburu asko ditugu gaur egun; aldamenekoek dituztenak gehitzen dira gainera. Wi-fiak, telefono DECT, eskuko telefonoak, segurtasun alarimak... Komunikazio inalanbrikoa den guztia. Eta honi guztiari elektrizitatearena gehitzen zaio: kanpo magnetikoak eta elektrikoak.



# Sinadurak biltzen ari dira, 5Garen inguruko moratoria eskatzeko

**NOAUA! Duela gutxi sinadura bilketa bat abiarazi duzue. Zer da zehazki eskatzen duzuen?**

**Aitziber Elortza:** Gaur egun jakina da kontaminazio elektromagnetikoaren eragina zenbaterainokoa den, milaka proba zientifiko badira urte askotan zehar eginak. Munduko Osasun Erakundeak berak minbiziaren eragile garrantzitsutzat du. Orain arte, 3G eta 4Garekin arazoak asko ugaritu dira eta 5Grako saltoa haratago dihoa. Arazoak larriak izan daitezke, bai gizakiarentzat; bai animalia, erle, intsektu zein izadiarentzat. Hau gelditu eta orain arte egin ez den eztabaida mahai gainean jarri eta modu egoki batean irtenbidea gauzatzeko modua lortu nahi da.

**Elektrohipersentibera den bati, zein neurritan eragingo dio 5G sistemaren balizko ezarpenak?**



5G teknologiaren aurkako protesta ekitaldi ugari egin dira nazioartean.

## AITZIBER ELORTZA

**“5G teknologiarekin arazoak larriak izan daitezke bai gizakiarentzat; bai animalia, intsektu zein izadiarentzat”**

**A. E.:** Gure sintoma, oinaze eta gaixotasunak biderkatze-ko arriskua dute, gaitz larri bilakatzeraino: minbizi, zirkulazio arazo, immunologiari

lotutakoak... Munduan ez da geratuko zirrikiturik uhinengandik libre denik, beraz, non babesturik izango al dugu? Gaur egun ospitaleetan ere uhin bidezko komunikazioak sartu dituzte, pentsa!

**Zer egingo da batzen diren sinadura horiekin?**

**A. E.:** Euskal Herriko udal eta hiri guztietan, arlo honetan eztabaida sortu eta osasun ingurumen baldintzak ziurtasun-

nik ez duten bitartean, 5Garen inguruko moratoria eskatzeko bideratzen ari gara.

**Gai honekin interesatuta da goenari zer esango zenioke?**

**A. E.:** elektrokutsadura-  
ausur-bil@gmail.com helbidera  
zuzendu dadila.

## Urriaren 9an, 5Gari buruzko hitzaldia Potxoenean

“5G teknologia, osasuna eta ingurumena” hitzaldia eskainiko dute Aitziber Elortzak eta Miren Mendibourek.

### Urriak 9 ostirala

- Arratsaldeko 19:00etan, Potxoenean.
- Antolatzailea: BiziBide.
- Izen ematea: doakoa da. Sarrera-kopurua mugatua da. Izen ematea, usurbilkultura.eus bidez.

## COVID19 BIRUSAREKIN GAIXOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarrek materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

**SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).**  
Pazientearen logelaren barruan egin.



**SARTU 1GO POLTSA, ZAINTZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).**

Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



**SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.**

**DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):**  
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



**ARRETAZ GARBITU ESQUAK,**  
URA ETA XABOIA ERABILITA,

40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

## GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan  
Etxean: errefusaren kuboan



## GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN



# Mintzapraktikan 10 urtez

**E**uskararen erabilera indartzeko egitasmo praktikotiko bat. Euskara ahotan hartzeak ate gehiago zabaltzen dituenaren erakusle argia. Hizkuntzak sozializatorako esparru berriak zabaltzerakoan eredu dugu, Usurbilen 10 urte bete dituen Mintzalagun egitasmoa.

Bidelari eta bidelagunak astero ordubetez euskararen mintzapraktikan jarri ditu hamarkada luzez Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko proiektuak. Urtemugaren harira, berez, maiatzean beste era bateko ospakizun moduko bat egin asmo zuten, “ezin izan dugu egin” bizi dugun osasun krisialdiagatik. Iragan irailaren 26ra atzeratzea erabaki zuten; Sutegin “bertso-magia” ikuskizuna antolatu zuten, Eriz magoarekin eta Asier Azpiroz eta Eli Pagola bertsolariarekin. Aurretik urtemuga ekitaldi txiki bat antolatu zuten.



Aurreko larunbatean Sutegin antolaturiko “bertso-magia” ikuskizunarekin ospatu zuten Mintzalagun egitasmoaren 10. urtemuga.

## MINTZALAGUN

**“Mintzalagunen 10 urte pasa ditugu, jarraitzeko esperantzarekin”, adierazi zuen Etumeta AEK euskaltegiko irakasle Rosa Zubeldiak**

### Astean behin, ordubetez

“Mintzalagunen 10 urte pasa ditugu, jarraitzeko asmoarekin, esperantzarekin”, adierazi

zuen Etumeta AEK euskaltegiko irakasle Rosa Zubeldiak.

Omenaldi eta eskertza ekitaldi txikiari bide eman aurretik, euskararen erabilera sustatzea helburu duen egitasmoaren nondik norako nagusiak gogorarazi zituen. Bizpahiru edota lau lagunez osaturiko taldeak izaten dira. “Boluntarioa da, astean behin izaten da”. Kafetxo baten bueltan, edota paseotxo bat emanez, euskara

ahotan hartzea da kontua. Taldeak bidelariak (euskara praktikatzera doazenak) eta bidelagunak (“euskaldun zaharrak”) osatzen dituzte.

Ekimenean parte hartzeko gonbita luzatu zuen. “Baten batek asmoa baleuka bidelagun izateko edo Mintzalagunen parte hartzeko, euskaltegira, NOAUA!ra edo udaletxera jo dezake galdetzerara, izen ematera. Librea da. Honez gero jakingo duzue, eskatzen den bakarra, astean behin, euskara praktikatzeko, bultzatzeko eta erabiltzeko ordubete konpromisoa hartzea da”, Zubeldiak gogorarazi zuenez.

Hamarnaka Mintzalagunek parte hartu dute 10 urteotan, euskararen erabilera sustatzea helburu zuen ekimenean. Tartean, duela urtebetetik Dani bidelaria eta Iñaki bidelaguna. Biak ala biak, urtebete pasatxo daramate egitasmoan parte hartzen, talde berean. Larunbateko Sutegiko eskertza ekitaldian hitza hartu zuten.

## “Astean behin kafetxo bat hartzen dugu”

### Dani: “Mintzalagunek euskara praktikatzeko aukera ematen dit”

Usurbilen bizi den argentinarra da Dani. Euskararen ezagutzan eta erabileran aurrerapausoak ematearekin batera, sozializatorako bidea ere bada Mintzalagun berarentzat. “Euskaldun berria naiz, Argentinakoa naiz baina hemen bizi naiz. Astean behin kafetxo bat hartzen dugu, hiru gara. Haiek euskaldun zaharrak baina gazteak dira, ni euskaldun berria. Niretzako oso onuragarria da euskara praktikatzeko, baina batez ere laguna izateko. Duela ia

bi urtetik Usurbilen bizi naiz familiarekin, eta hasieran, jendea ezagutzea pixka bat zaila da. Mintzalagunek laguna izan eta euskara praktikatzeko aukera ematen dit. Eta hori motibazioa da, hizkuntza bat ikasteko beti behar duzun motibazioa, eta lagunen bidez, adiskidetasunaren bidez polita da”.

### Iñaki: “Esperientzia oso polita da. Asko ikasten dugu nahiz eta printzipioz gu irakastera sartzen garen”

Sortzez ataundarra, duela urtebete Usurbila heldutakoa. “Ez nuen inor ezagutzen”,

azaldu zuten Sutegiko ekitaldian. Txikitatik euskara ama hizkuntza duela hazi ostean, bidelagun gisa parte hartzen ari da Mintzalagun egitasmoan. Bidelarien edo euskara ikasi eta ahotan hartzen hasi direnen ahalegina nabarmendu zuen. “Bada ilargitik eroritako jende zoragarri bat, Daniren kasua adibidez, nolabait ailegatu direnak ulertzera euskara euskaldunontzako zer den, eta euren ere haietzako nahi dute. Ulertzeaz gain haratago iritsi dira eta euskara ikasteko erabakia hartu dute. Argentinatik etorri eta euska-

ra ikastea, irribarrea ateratzen zait”.

10 urtez, Mintzalagun Usurbilen sustatzen aritu den taldea ere goraiatu zuen. “Jende hau dena ikusita zer eskubide dugu guk gure aldetik ahal dugun guztian ez laguntzeko ezta? Esperientzia oso polita da, asko ikasten dugu nahiz eta printzipioz gu irakastera sartzen garen. Eta egitan animatzen zaituztet, oraindik apuntatu ez bazarete apuntatzeko. Eskerrik asko denoi, bakoitzak zuen aldetik jartzen duzuen parteagatik. Zuekin dena da posible, aupa zuek!”.

## “Betiko bezeroak berreskuratu ditugu”

**NOAUA! Nola oroitzen duzue itxiera?**

**Aginaga Sagardotegia:** Hasiera batean astebeteko kontua izango zela pentsatzen genuen. Etxean geratu behar genuela esan zutenean, urduritasunez, kezkarikin, nola moldatu, janari galkorra ere bagenuen... Itxi genuen egunean 500 lagun-entzako erreserba genuen.

**Txotx garai betean zineten.**

Urtarrilean hasi arren, martxoa da lan gehien egiten den hilabetea. Aste Santuak zetozen gero, bai hotelean eta sagardotegian lana egiten da egun horietan. Genero gehiena kolokatu genuen, hornitzaileak ondo portatu ziren.

**Nolakoa izan da errealitate berri honetara egokitzea?**

Uste baino errazagoa izan da. Jende gutxiago etorriko da, baina leku handia dugu eta jendea



“Lasai etor daitezela bereroak. Gu dena emateko prest gaude”.

**AGINAGA SAGARDOTEGIA**  
**“Udaletxearen partetik idea ona izan da. Bonuak bezeroak fidelizatzen laguntzen du”**

sakabanatu dezakegu.

**Zuentzako lan gehiago?**

Errutina modukoa jartzea da; aulkiak pasa eta mahaia, komunak ere sarritan garbitu...

Txotxa irekitzeko zulodun kor-  
txo batzuk moldatu ditugu,  
txotxak eta eskuak kanilak ez  
ukitzeko, jendea hartara txotxe-  
ra altxa daiteke.

**Mugimendu aldetik aldaketarik sumatu duzue?**

Orain gehixeago. Lehen bi asteetan suabe hasi ginen lanean. gero pixka bat gehixeago... Egun betiko bezeroak berreskuratu ditugu, sarriago etortzen

hasi dira.

**Zer aurreikuspen dituzue hurrengo hilabetei begira?**

Hala segita nahiko txukun lan egingo dugu. Halere ezin lehengoko garaiarekin alderatu. Taldeekin lan egin izan dugu, autobusekin. Orain apenas etortzen diren. Baina egitura aldetik taldeei harrera egiteko nahiko espazio dugu. Urtarrila eta otsaila txotx garaia izan arren, nahiko tristeak izaten dira. Hurrengo urtean norik jakin. Topera lan eginda ere ez da izango lehen bezala. Baina dugun afororako oso ondo ari gara lanean.

**Sektoretik behin eta berriz laguntza eskatzen da.**

Arauetan koherentzia. Beste lekuetan ere egongo dira arazoak baina ez dira hainbestetan entzuten. Zentzuz jokatur, bakoitzak bere aldetik jarri gero arazorik ez luke egon behar.

## “Geroz eta jende gehiago etortzen da oinez hona”

**NOAUA! Nola oroitzen duzu martxoko itxiera?**

**Begoña Solaberrieta, Zumeta jatetxea:** Egun batetik bestera izan zen. Guk erabaki genuen ixtea. Ez nuen uste hain luze joango zenik.

**Hiru hilabeteko itxierak zer eragin izan du zuenean?**

Autonomoak izanda hiru hilabete diru sarrerik gabe. Telebistan iragartzen ziren autonomoentzako laguntzak, baina ez zen ezer iristen. Eta gastu berdinak. Beldurtuta, ezin jakin noiz ireki-  
ko duzun, gero zer pasako zen...

**Txokoalden biltzeko leku bakarrentariko itxita zen.**

Elkarte ere itxita zegoen, parkea ere bai. Aukerarik ere ez besteei galdetzeko zer pasako zen.

**Ekaineko irekiera nolakoa izan zen?**

Berriolakoak 40 urte darama-



“Erdira jaitsia dugu aforoa, berrogeira”, azaldu digute Zumeta jatetxeak.

**ZUMETA JATETXEA**  
**“Oso eskertuak gaude Udalari, terrazaz jartzeko baimena eman zigulako”**

tzate hemen bazkaltzen. Ekainean ireki genuenean, jangela egokitu genuen; lau eta sei laguneko mahaian lagun bakararra, hamarrekoan 2 lagun, bazkariak 3 txandatan zerbitzatzen aritu

gara. Egun erdira jaitsia dugu aforoa, berrogeira. Distantzia ere hazi egin da, lehen mahai batetik bestera 1,5 metro eta orain pertsonen artean gorde behar da 1,5 metroko tartea.

**Eta terraza ere baduzue orain.**

Oso eskertuak gaude Udalari, terrazaz jartzeko baimena eman zigulako. Batek baino gehiagok esan digu bazela garaia, behar zela. Esperientzia ona izaten ari

da. Jendeak jatea eta dena eskatzen zidan terrazan.

**Bezere berriak erakarri dituzuen terrazak?**

Geroz eta jende gehiago etortzen da oinez ibiltzera hona. Jende berria bai baina horrek ez du esan nahi irabazi gehiago, etekin txikia ateratzen diozu terrazari.

**Zer nolako negua bizitzea aurreikusten duzue?**

Terraza ezin bermatu, bada-kigu zer eguraldi egiten duen. Egoeraren arabera. Egun batean gauza bat esaten dute, gero hurrengoan kutsatze kasu asko daudela. Oso negu beltza izango dela uste dut, gastuak finakoak dira eta ez baduzu lanik egiten...

**Gertuago bezalako laguntza egitasmoak zer iruditzen zaizkizu?**

Bikaina iruditzen zait.



# Udalaren gutuna Aranjuez espetxeko zuzendariari

Senideen arteko komunikazio ahal bezain gertukoena bermatzea eskatu diote Usurbilgo Udalean ordezkariak duten hiru taldeek, EHBilduk, EAJ-k eta PSE-k gutun bidez, Aranjuezko espetxe zuzendariari: duela bi urtetik baldintzapean aske behar zuten arren, oraindik orain aipatu Madrilgo espetxean diren Olatz Lasagabasterrek, Patxi Urangak eta haien haur jaioberri Maddik, haien artean elkar komunikatu ahal izatea bermatzea; eta gauza bera, haiengandik ehunka kilometrora Usurbilen bizi den Xuarekin eta hurbileko familiarterkoekin.

## Gutuna

Aranjuezko espetxeko zuzendari jauna, beheko sinatzailleok, Usurbilgo Udaleko zinegotziak, zuregana zuzentzen gara, zuk zuzenduriko espetxean diren Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak osaturiko bikotearen zirkuntzientzengatik, eta hilabete gutxi izan eta espetxe berean amarekin den haien alaba Maddirengatik.

Jakitun izango zarela suposatzen dugu, iragan urtarrilean bien alaba helduenak (Xuak) espetxea utzi zuela hiru urte bete ostean. Ordutik, behin bakarrik ikusi ahal izan ditu bere aita eta bere ama (otsailaren 27an, familiak aipatu duenez). Covid19-aren pandemiak eragindako konfinamenduaren ondorioz hilabeteetan eten ziren komunikazioak, baina berrartu zirenean, ez dute elkarbitzita bisita bakar bat ere izatea lortu. Uneotan, berriz etenda daude. Lokutorio bidezko bisiten aukera Xuaren kasuan kaltegarria litzateke, gurasoekin hartueman fisikorik eduki ahal izan ezina guztiz ulertezina izango litzateke-



Aurreko ostiralean elkarretaratzea egin zen frontoian.

## UDAL ORDEZKARIAK

**“Ulertzen dugu pandemiak eragindako egoera kudeatzeko zailtasuna. Halere, senideen arteko harremanak mantendu eta garatzea bermatzeko, ahal bezain gertukoena den familia komunikazioa erraztea aztertzea eskatzen dizugu”**

elako, eta frustagarria, duela hilabete gutxira arte uneoro amarekin elkarbitzita izan den hiru urteko haur batentzat.

Ulertzen dugu pandemiak eragindako egoera kudeatzeko zailtasuna, zurea bezalako espetxe batean. Halere, senideen arteko harremanak mantendu eta garatzea bermatzeko, ahal bezain gertukoena den familia komunikazioa erraztea aztertzea eskatzen dizugu, espetxe barruan dauden gurasoei eta bere alaba txiki Maddiri dagokionean, baita Xuari dagokionean ere, eta hortaz, baita senide hurbilekoei (aiton-amonak) dagokionean ere.

Hala, Patxi, Olatz eta Maddiren kasuan uste dugu zure espetxean duzuen elkarbitzita moduluan biltzeko aukera legokeela adibidez eta Xuaren kasuan, elkarbitzita “bis a bis”

bisitak edo bideokonferentzia bidezko deiak onartuta.

Zuk jakin dezazun, haien senideak gure udalerrian guztiz finkatuak dituzten gure herrikideek bizi duten egoerak herritar gehienek artean kezka eragiten du. Egoera honekiko sarritan haien kezka eta ulertezintasuna helarazi izan diete haien ordezkari instituzionalei. Are gehiago, egoera hau aspaldi konpondua egon zitekeela eta egon behar zuela irizten diote, bi presoak espetxealdi amaieran baitaude eta ohiko bide legaletik eta eskatutako baldintzekin, komunitatean birgizarteratu daitezke. Horrek gauza hauei guztiei eta sufrimendu gehigarriei amaiera emango lieke, batez ere egungoa bezalako osasun testuinguruan.

Horregatik, Usurbilgo Udaleko kide instituzional guztiok egingarritzat jotzen ditugun gure kezka eta eskaerak kontuan hartzea eskatzen dizugu eta ahal bada aztertzea. Aldekoa izatea espero dugun zure erantzunaren zain geratzen gara. Adeitasunez,

**Agurtzane Solaberrieta Mesa Usurbilgo alkatea, Josune Urkola EAJ-ren bozeramailea Usurbilgo Udalean, Patxi Suarez PSE-ren bozeramailea Usurbilgo Udalean.**

## Bideodeiak ukatu dizkiete Olatz Lasagabasterri eta Patxi Urangari

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak iragan ostiraleko hileroko elkarretaratzean salatu zuenez, aurrez aurreko bisitak etenda dituzten Olatz Lasagabasterri eta Patxi Urangari komunikazio telematikoak ere debekatu dizkiete. “Ez da egokia. Momentuz ez behar beste justifikatua”. Horixe Patxi Urangak haiengandik ehunka kilometrora Usurbilen dagoen alaba Xuarekin komunikatu ahal izateko duela hilabete eskaerari Aranjuezko espetxeko zuzendariak emandako erantzuna.

“Hilabeteak daramatzate bai berak eta bai Olatzek Xua alaba ikusi gabe eta bideo-deiaren aukera ere ukatu egin diote”, salatu zuten Usurbilen Nahi Ditugu bilguneetik aurreko asteko mobilizazioan.

Horrez gain, “Olatz dagoen moduluan Covid19ko kasu bat eman zela-eta, isolatua eta inolako bisitarik gabe egon da oraintxe arte. Euskal preso politikoak dauden Espainiako 44 espetxeetatik 30etan aurrez aurreko bisitak etenda daude. Lokutorioak ere gero eta zailtasun handiagoekin egiten dira. Xua lokutorio bateko bisitara, hau da, kristala tartean duen kabinetan egiten diren bisitetara eramatea, pentsaezina da. Hiru urtera arte, egunero, amarekin bizi izan den haur batentzat, ez bere ama eta ezta aita ere besarkatu ezin sekulako frustrazioa eragingo lioke. Hala eta guztiz ere, bideodeiak egiteko baimena: ez da egokia. Ez dago aski justifikatua”. Urrunketa desaktibatuta, presoak Euskal Herriko espetxeetara ekarri eta “nazioarteko erakundeek pandemiaren hasieran gomendatu zituzten neurriak” aktibatzea galdegin zuten.

# Larunbat honetan Andatzara igotzeko deia egin du Sarek

Sarek 650 mendi tontorretara igotzeko gonbita luzatu du, uda hasieratik martxan duten "Izan bidea" dinamikaren baitan. Larunbat honetarako egin dute deialdia. Usurbilgo kasuan, Andatza izango da ibiltarien helmuga.

9:00etan frontoitik finkatu dute abiatzeko hitzordua, adin guztietako bidelaguntzat. Bere kasa joan nahi duenak badu bigarren hitzordua bat, Andatza gainean 11:00etan. Ordu horretan bilduko dira parte hartzaileak; besteak beste, banderola bat jarri eta "Ikusi mendizaleak" abesti ezaguna kantatuko dute. Abestiaren letra eskura izan honenbestez. Bertan dirrela, "beste tontorretan gaude nak agurtzen saiatuko gara", Usurbilgo Saretik NOAUA!ri adierazi diotenez. Inguruko mendietara ere igoko baitira



9:00etan frontoitik finkatu dute abiatzeko hitzordua, adin guztietako bidelaguntzat.

## IZENA EMAN BEHAR DA

**"650tontor.sare.eus web orrialdean eman behar da izena"**

hainbat herritar; "Belkoainera, Buruntzara, Adarrara, Onyira, Mendizorroztzera..."

### Aurrez eman behar da izena

Sareren 650tontor.sare.eus web orrialdean eman daiteke izena; sartu web orrian eta igo nahi duzun mendi tontorra hautatu. Usurbildarren kasuan, Andatza.

### Urriak 3 larunbata, Andatzara

■ 09:00 Sarek antolaturiko mendi martxa Andatzara, frontoitik abiatuta.

■ 11:00 Andatza tontorrean bilkura; banderola jarri, "Ikusi mendizaleak" abestia kantatu, inguruko mendietako parte hartzaileak agurtu...

■ Izen ematea: 650tontor.sare.eus

### Urriak 24 larunbata,

#### Manifestazioa Donostian

■ 17:00 Manifestazioa Donostian Antigua auzoko tuneletik.

■ Deitzailea: Sare.

## Garaipena, Endika Abrileko lehen emaitza

13-12 irabazita, garaipenarekin ekin dio Zubietak 57. Enrike Abril errebot txapelketari. Kapit Harri Ustaritzeko taldearekin izandako lehen neurketan etxeok nagusitu ziren irailaren 27an.

Aldaketarik ez bada, hurrengo partida urriaren 4an jokatuko dute. Goizeko 11:00etan hasita Sarako Izarra taldekoekin lehiatuko dira zubietarrak.



13-12 irabazita, garaipenarekin ekin dio Zubietak Enrike Abril txapelketari.

### Yoga Zubietan

Astelehenetan 18:00-19:30 artean Kaxkapen. Izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 647 587 258.

### Futbol Eskolari lotutako guraso bilera

Ostiralean (urriak 2), 17:00etan Potxoenean. Bertaratu asmo dutenek deitu aurrez 688 62 10 07 telefono zenbakira. Gero, urriaren 7an eta 9an bideratuko dute izen ematea 18:00-19:30 artean Haranen. Deialdia 2009-12 urte artean jaiotakoei zuzendua dago.

Entrenamenduak urriaren 23an abiatuko dituzte:

■ 17:30-18:30, 2011-2012an jaiotakoak.

■ 18:30-19:30, 2009-2010ean jaiotakoak.

### Escola Kirola

Urriaren 5ean hasiko dira banakako jarduerak, hilaren 19an taldekakoak. Entrenamendu saioetarako zenbait moldaketa egin beharko dituzte antolatzaileek, "beste espazio batzuk erabili beharra, gehieneko edukierak ez gaintzeko". Izena irailaren 22a baino lehen online bideratu beharra zegoen.

### 57. Enrique Abril Errebote Txapelketa

Urriak 4 igandea. 11:00h

■ Sarako Izarra-Zubieta.

■ Tokia: Zubietan.

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

**www.noaua.eus**

**USURBILGO ATARIA**

**Patricia Jaitexea**

• bazkariak EGUNERO  
• afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

**Alokairuan**

Usurbilen, kaxkoan eta in-

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke:

943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

guruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Kale Nagusian. Garaje itxia salgai. 16m². Goiko solairuan. Apalategiekin. Hezetasunik gabe. Komunitateko garbitegia. 653716914

Santuenea auzoan trastero txiki

baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV.info@quantum.eus](mailto:CV.info@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetak, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingelesezko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaiz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren umeen zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabaldua alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest .664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea.

**Zorionak maitxia!!**

11 kandelari putz egingo diozu oraingoan eta denok pozez ospatuko dugu egun zoragarri hau. Musu erraldoia zuretzat. Segi beti bezain maitagarria izaten.

**Zorionak Maddi!!**

Datorren urriaren 2an 6 urte beteko dituzu. Jarraitu beti bezain alai. Maite zaitugu. Muxu bat familia guztiaren partez.

**Zorionak Irati!!**

Gure etxeko sorginak 6 urte bete ditu. Zorionak Irati!! Txokolatezko muxu asko!!



617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrek zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitaria behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. Telefono zenbakia: 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zain-  
tzeko prest. 617016290.

**BESTELAKOAK**

9 urteko gaztetxo batentzako

bigarren eskuko saxofoi bat gustora erosiko genuke. Etxean erabilerarik gabe badaukazu jarri gurekin harremanetan 679478164

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuvia. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

**Telefono interesgarriak**

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirrinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Heriotzak****Inazia****Garate Elorza**

Irailaren 18an  
hil zen,  
95 urterekin

**Heriotzak****Cesar****Gorgojo Calle**

Irailaren 25ean  
hil zen,  
93 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 01** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 03** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 04** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astelehena 05** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 06** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 07** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

**Urriak 01 - Urriak 11**

**Osteguna 08** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 09** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 11** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA-MARTIN-HERNANI  
Etxeberri auzoa, 1. Florida  
943 55 77 38

# Agenda urria

## 02 ostirala

- **San Praixkuak Aginagan: Ene Kantak** 18:00etan Ariztitxo frontoian.

## 03 larunbata

- **Andatzara mendi martxa.** 09:00etan frontoian. 11:00etan tontorrean bilkura. Deitzailea: Sare. Izen ematea: 650tontor.sare.eus
- **San Praixkuak Aginagan: Mihise eta Unidad Alavesa kontzertuan.** 18:00etan Ariztitxo frontoian.

## 04 igandea

- **Enrique Abril Errebote Txapelketa Zubietako errebote plazan.** 11:00etan Sarako Izarra-Zubieta.
- **San Praixkuak Aginagan:** 11:00 Meza nagusia. 12:00 Herri kirol erakustaldia Ariztitxo frontoian.

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburu honetarako Aginagan

### Urriak 2, ostirala

- 18:00 Ene Kantak Ariztitxo frontoian.

### Urriak 3, larunbata

- 18:00 Mihise eta Unidad Alavesa rock taldeak Ariztitxo frontoian.

### Urriak 4, igandea:

#### San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Herri kirol erakustaldia Ariztitxo frontoian:
- Harrijasotzaileak: Jokin Eizmendi, Imanol Illaramendi "Kortaberri", Gorka Etxeberría eta Udane Ostolaza (15 urte).
- Aizkolariak: Iñaki Azurmendi eta Xabier Zaldúa.
- Hizlariak: Joseba Ostolaza eta Manuel



Amebaren ordez Mihise taldea arituko da larunbatean Aginagako frontoian.

#### Mari Galarraga.

-Agiñarrak ere kirolean: Trontzan, txingetan eta lokotx bilketan ere izango ditugu.

- Ekitaldiotarako sarrerak: usurbilkultura.eus
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

## Ziortza, ikasturte hasieran

Abiatzear ditu DBH-ko gazteekin ikasturte berriko topaketak. "Saioak urtean zehar gazteekin egiten ditugun aisialdi ekintzak dira, mailakako edo adin-tarteakako taldeetan berezita. Anima zaitetz eta etor zaitetz gurekin ongi pasatzera!".

Saioetan parte hartzeko asmoa dutenek email bat helarazi dezatela izen abizenak eta ikasketa maila adierazita,

ziortzage@gmail.com helbidera, "eta berehala bidaliko dizugu baimen-orria". Baimen orria inprimatua, beteta eta sinatuta eraman beharko da lehen saiora, "bestela ezingo baituzue parte hartu". Saioen egutegia:

- DBH1 eta DBH3-koen saioak hilero 3. ostiraletan.
- DBH2 eta DBH4-koen saioak hilero 4. ostiraletan.

### Datozenak

#### Urriaren 17an, 'Zaldi urdina' antzezlanaren Sutekin

Jexux Artzeren omenezko zikloa maiatzean izan ohi da. Konfinamenduaren erruz, aurtengoa bertan behera utzi behar izan zuten. Hala ere, indarrak batu eta antzezlan bat antolatu dute Jexux Artze Kultur Elkarteak.

#### Sarrerak Lizardin salgai

- Urriak 17 larunbata
- 20:00etan Sutekin.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro aldez aurretik, 10 euro egun berean (lehiatilan).
- Sinopsia: Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa delakoan...
- Gidoia: Unai Iturriaga, Igor Elortza.
- Zuzendaritza: Ximun Fuchs.



Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatu du antzezlanaren Sutekin.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
RPS: 28/17  
20170  
USURBIL

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

José María Larburu  
Garraiatzailea



# LARBURU

Garraioak

gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA ☎ 943 36 17 35 • 651 703 237

ERRETEGIAS



SAN  
PRAIXKU  
BIHOTZEAN

# sekaña

## ERRETEGIA

AGINAGA • ☎ 943 362 773 - 667 694 769



# URDAIRA

## Sagardotegia

ESKATU SAGARDOA!  
SAN PRAIXKU  
BIHOTZEZ!



AGINAGA 943 37 26 91





# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euzkainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Ataldu pol. ataldu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio URRUZOLA**  
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROTZEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

**J. R. IBARGOEN S.L.**  
ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntopax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiiturgintza.com · www.inakiiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKHUNERO ALTZARIAK

Bordaberi kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



**XORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39